



EMUN

LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

PLATA
FORMA
PER LA
LLENGUA

Hizkuntza harrerarako gidaliburu praktikoa

Hizkuntz harrerari buruzko baliabideen
gidaliburua etorkinen harreragileentzat



Hizkuntza harrerarako gidaliburu praktiko

Hizkuntz harrerari buruzko baliabideen
gidaliburua etorkinen harreragileentzat





“Nire herrialdea ez bada ere, nire seme-alabena bada; beharrezkoa da eurak hemengoak izatea, edozein euskaldun bezala, hemengo herritarrak izatea”

Boris, ukrainarra.

“Etorri eta berehala konturatu nintzen gaztelania ez zen beste hizkuntza bat hitz egiten zela herrian, eta oso garbi daukat, hemen integratuko banaiz, ezinbestean ikasi behar dudala euskara.”

Ali, marokarra.

“Haurrak hemen jaio ziren (...). Ia euskara hutsean ikasten dute. (...) Badakite nirekin hitz egin behar dutenean erdaraz egin behar dutela, aitarekin euskaraz egiten dute. Txikiak, batzuetan, gauza bat erdaraz nola den ez dakienean euskaraz esaten dit, eta nik esaten diot 'no te entiendo' eta berak 'es que no sé'... orduan, alabak itzultzailearena egiten du, horrela konpontzen ditugu ezulertuak(...)”

Marisa, ekuadortarra.

“Lagun euskaldun asko dut herrian eta esaten didate: Sara, zuk jada euskaraz asko egiten duzu, e? Eta zoriondu egiten naute, eta gustura eta pozik jartzen naiz.”

Sara, Marokoko amazigha.

“Hona etorri aurretik, ez nekien existitzen zenik ere, hemen egiten zen hizkuntza bakarria gaztelania zela uste nuen, eta beste hizkuntza bat egiten zela jabetu nintzenean ere ez nion inportantzi izpirik eman (...). Euskara dezente entzuten dut nire inguruan eta, batzuetan, ni ere komunikazio egoera horietan egoten banaiz, nitaz gaizki esaka ez direla ari eta horregatik lasai egoteko esaten didate; 'gure hizkuntza da eta gure hizkuntzan egiten dugu', esaten didate; nik, ez dago arazorik 'sigan usted es hablando su idioma' erantzuten diet.”

Jose Miguel, boliviarra.

“Gustura ikasiko nuke euskara, hemen bizitzeko uste dut oso inportantea dela euskara ere jakitea, beti pentsatu izan dut hori. Aukera dudanean, gauzak hobetzen direnean, dudarik gabe ikasi egingo dut.”

Pedro, ekuadortarra.

“Seme-alabek esaten dizkidaten hitz solte batzuk ulertzen ditut; 'pixka bat' ulertzen dut.(...) poztzen naiz nire seme-alabek euskara jakiteaz; zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobeto.”

Ileana, errumaniarra



Aurkibidea

Sarrera	04
Gidaliburuaren egitura	05
1. Lehen harrera	06
1.1. Harreragileen hizkuntz ohiturak	07
1.2. Euskara ikasteko beharra	10
1.3. Hizkuntz harreran laguntzeko baliabideak	12
1.4. Lehen harrera	15
1.5. Lan arloko hizkuntz integrazioa	17
2. Euskararen i(ra)kaskuntza	19
2.1. Euskararen didaktika	20
2.2. Kultur eta hizkuntz aniztasunaren trataera	22
2.3. Ikasle etorkinen eskolako parte hartzea eta arrakasta	26
2.4. Aisialdian euskara ikastea	28
3. Gizarte harremanak	30
3.1. Etorkinekiko harremanak	31
3.2. Familia etorkinekiko harremanak	32
Bibliografia	34

Sarrera

Esku artean duzun *Hizkuntz harrerarako gidaliburu praktikoa* etorkinen harrerarekin lotura duten guztientzako tresna da: irakasleentzat, gizarte hezitzaileentzat, boluntarioentzat eta administrazio publikoko teknikarientzat, besteak beste. Etorkinak euskarara hurbiltzeko eta eurekin dihardutenen artean euskararen erabilera bultzatzeko hausnarketa eta baliabide praktikokoak aurkituko dituzue bertan.

Material honek funtsezko zutabe bat dauka: aniztasunaren kudeaketa eta pertsona guztien integrazioa desberdintasunekiko errespetuan oinarritu behar dira, baina horrekin batera guztiok partekatutako proiektu bat behar dugu gizarteko kide izan gaitezen, guztiok aukera eta askatasun berdintasunean. Aukera horiek errazago lortuko dira etorkinak ere euskarara hurbiltzen baditugu.

Hain zuzen ere, ideia eta ekimen berritzaileak ari dira garatzen euskaraz. Dena den, gure gizartea konplexua da, gero eta askotarikoagoa, eta belaunaldi berriak heztea eta gizartearen eta hizkuntzaren ikuspegitik garatzea ezin da soilik utzi irakasleen eta eskolaren esku. Horregatik, orain inoiz baino gehiago, etorkinen harreraren parte hartzen duten eragile guztien koordinazioa behar da helburuetan eta ekintzetan, eragile horiexek baitira etorkinen lehen hizkuntz erreferenteak (aisialdirako elkarteetan, kiroldegietan, zerbitzu publikoetan, guraso elkarteetan eta abarretan).

Egoera soziolinguistikoa oso desberdina denez Euskal Herriko toki batzuetatik besteetara, hemen aurkezten diren proposamenak egokiagoak izango dira leku batzuetarako beste batzuetarako baino. Horregatik, kasu bakoitzean ondo aztertu beharko da nola aplikatu egoera zehatzetara hemen jasotakoak.

Material hau Kataluniako Plataforma per la Llengua erakundeak egindako *Guia d'acollida lingüística* liburuxkaren Euskal Herrirako egokitzapena da, Katalunian arlo honetan duten esperientzia aprobetxatzeko asmoarekin egina. Jatorrizko bertsioa oso-osorik Interneten lor daiteke:

www.plataforma-llengua.cat/media/assets/1156/guia_acollida_2008.pdf



Gidaliburuaren egitura

Liburuxka hau hizkuntz harrerarekin zerikusia duten hiru multzotan egituratu da: lehen harrera, hizkuntzaren ikaskuntza eta gizarte harremanak.

Lehen harreraren etorkinek hemengo gizartearekin eta zerbitzuekin dituzten lehen harremanak sartzeko dira; ume eta gazteen kasuan aurrematrikula egiten dutenetik ikaslea eskolan edo aisialdiko gunean hasi arteko fasea ere bai (nahiz eta sarritan aurrematrikularik egin gabe sartzeko diren eskolan, garaiz kanpo iristen direlako). Lehen multzo honetan aztertu dugu etorkinak lan munduan sartzea ere. Bigarren multzoan, euskarara hurbiltzeari eta euskara ikasteari buruz dihardugu: ume eta gazteek eskolan, eta helduek bestelako bideetatik (euskaltegietan, lanean, kalean...). Azken multzoan, gizarte harremanak garatzeari buruz dihardugu, etorkinekin oro har, alde batetik, eta familiekin, beste alde batetik. Multzo guztietan saiatu gara azpimarratzen harrerako prozesua elkarri egokitzeko prozesu bat dela, gizarte harreragilearen eta etorkinen artean gertatzen dena.

Gai bakoitzean baliabideak eta kontsulta materialen berri ematen da. Materialetan,

Interneten eskuragarri daudenei eman diegu lehenetsua eta hainbat arlo lantzen dira: hezkuntza formala, (lehen hezkuntza, DBH eta batxilergoa), hezkuntza ez formala (aisialdiko erakundeak, kirol taldeak...), hezkuntza informala (auzo elkarteak, etorkinei laguntzeko elkarteak...) eta administrazio publikoa (udaletako edo eskualdeetako immigrazio zerbitzuak, gizarte ongizateko zerbitzuak, anbulatorioak...). Interneteko helbide guztiak behar bezala zebiltzan lan hau amaitzerakoan, 2010eko irailean.



1. Lehen harrera





1.1. Harreragileen hizkuntz ohiturak

Etorकिन harreran edozein arlotan dihardugun guztiok (udalean, eskolan, osasun etxeetan, aisialdian, kiroldegietan...) geure lanean eta egunerokoan **euskararekiko leialtasun handia izango** bagenu, inklusiorako oso lan garrantzitsua egingo genuke, hainbat arrazoiengatik:

- a) **Gizarte bazterketa ekidingo genuke.** Behin baino gehiagotan entzungo genuen esaldi hau: *“etorkinek ez daukate euskaraz jakin beharrik, denok dakigulako erdaraz”*; baina integratzea ez da soilik elkarren artean komunikatzea: integratzea da leku batean bizi izatea gainerako herritarrekiko berdintasunean. Horregatik, Euskal Herrian etorkinei euskararako sarbiderik ez ematea gizarte bazterketa modu bat besterik ez da.
- b) **Euskara ikasteko aukerak emango genizkieke.** Sarritan, nahiz eta inguru euskaldunean bizi, etorkinei erdaraz egiteko ohitura handia dago; horregatik da, hain zuzen ere, garrantzitsua eurekin zuzenean lanean ari garenok ohitura hori aldatzea eta euskaraz egitea. Euskaraz gutxi egiten den inguruetan dihardugun ikastetxe, gizarte etxe eta administrazioako langileok ere ez gara ari alfer-lanean euskaraz egiten badiegu. Etorकिनak bizi diren herri eta auzo horietan euskarak dituen hutsuneak betetzen ari gara.
- c) **Euskararen egoera hobetu ahal izango genuke.** Euskara etorkinentzat hurbilagoko hizkuntza izan dadila egin dezakegu, eta eskolaren bidez euren seme-alaben eguneroko hizkuntza bihurtu dadila. Gainera, helduek euskaraz ikas dezaten gogoia ere pitz dezakegu. Izan ere, azken hamarkadako immigrazioak gure herriaren hizkuntz egoera aldatu egin du: elebitasun egoeratik eleaniztasunera igaro gara (Hego Euskal Herrian 100 hizkuntzatik gora aurkitu dituzte). Testuinguru berri honetan euskarari bere tokia aurkitu behar diogu, eta bertokoekiko loturak sendotzeko tresna gisa ematen dituen aukerak aprobetxatu behar ditugu, euskararekiko sentimendu baikorrak kutsatuz eta gure hizkuntzarekiko portaera eta jarrera positiboak adieraziz.
- d) **Aukera berdintasunaren alde egingo genuke.** Euskaraz jakitea lagungarria da harremanak egiteko edo lana aurkitzeko. Euskal Herrian bizi garen guztiok izan beharko genuke euskara ikasteko eskubidea, lege egoera edozein dela ere. Horrenbestez, etorkinak euskarara hurbiltzea eta ahal den guztietan eurekin euskaraz egitea oso tresna ona da aukera berdintasuna bermatzeko.

Euskaraz leialtasunez jarduteko, ohitura berri hau hartu behar dugu: lehen hitza beti euskaraz egin eta, ulertzen badigute, euskaraz egiten jarraitu, nahiz eta besteak erdaraz erantzun, betiere solaskidearen jatorriari begiratu gabe. Solaskidea **euskaraz oraindik ez bada ondo moldatzen, hainbat estrategia erabil ditzakegu** gure jarduna ulergarriagoa egiteko:

- Astiroago hitz egin.
- Gure jardunean keinuak eta irudiak sartu.
- Hitz eta esaldi errazak erabili.
- Eskolan edo euskaltegian ikasitakoa baldin bada edo ikasten ari bada, euskara batua erabili.
- Mezua errepikatu, behar den guztietan.
- Aurretik prestatu elkarrizketa: zertaz hitz egingo den azaldu beste euskarri batzuen bidez.
- Saiatu hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ez dadin tentsio iturri izan.

Garrantzitsua da gure jardueran sinpatia eta enpatia erabiltzea. Beraz, solaskidearen tokian jartzen saiatu behar dugu, eta horren arabera moldatzen eta egokitzen komunikazioa bermatzeko. Horrek, jakina, ez du esan nahi nahitaez gaztelaniaz jardun behar dugunik. Euskaraz egiten saia gaitzke eta solaskidearen erreakzioen arabera aldatu. Ulertzen badigu, nahiz eta berak erdaraz erantzun, euskaraz jarrai dezakegu. Elkar ulertzeko beste hizkuntza batzuk ere erabil ditzakegu (ez du zertan beti gaztelania izan Hegoaldean edo frantsesa Iparraldean).

Helburuak >

- > Harreragileok hizkuntz kontuetan dugun zeregina geure gain hartzea.
- > Euskarak guztiok batzeko ematen dituen aukeren kontzientzia izatea.
- > Komunikazio hutsunea duten egoerei aurre egiten jakitea.





1 tresna.

Hizkuntz egoera
gatazkatsuei aurre egiten
jakiteko eskuliburu
praktikoa.

Zer egin? EMUN

Emun Kooperatibak esku artean duzun honekin batera ateratako liburuxka da; hura ere Kataluniako Plataforma per la Llengua erakundearen materialean oinarrituta. Sarritan, aurre egiteko zail eta deseroso gertatzen zaizkigun hizkuntzarekin zerikusia duten eguneroko egoerei aurre egiteko iradokizunak ematen dira. Liburuxka hori lortzeko, hona egin eskaria:

EMUN Koop. E. - Telefonoa: 943 71 18 47
emun@emun.com - www.emun.com

2 tresna. TELP tailerra.

Sentsibilizazio tailerra. EMUN Koop. E.

Taller d'Espai Lingüístic Personal tailerrak (TELP izenez ezagunak) Gemma Sanginesek eta Ferran Suayk sortutakoak dira, Valentzian. Tailer horiek Emunek egokitu ditu Euskal Herrirako, eta dagoeneko hainbat eta hainbat saio eman ditu. Tailerraren helburu nagusia norberaren hizkuntz eremua zabaltzea da. Hau da, euskarak gutako bakoitzaren eguneroko bizitzan ahalik eta espaziorik zabalena hartzea, eta hori egiteko baliabideak lortzea, besteak beste, hizkuntz asertibitatean oinarrituz.

TELPa euskal hiztunak diren eta dagoeneko hizkuntz kontzientzia badutenei zuzenduta dago. Tailerretan ez da inor konbentzitu nahi euskaraz egiteko; euskaraz bizi nahi eta egoera batzuetan nola egin ez dakitenentzako esku-hartze proposamen bat da. Horrenbestez, euskaraz egitean, eroso eta gustura jarduteko eta batzuetan bizi izan ohi diren eragozpen edo arazoei aurre egiteko baliabideak eskaintzen ditu tailerrak

Informazio gehiago nahi izanez gero:

EMUN Koop. E. - Telefonoa: 943 71 18 47
emun@emun.com - www.emun.com/hizkuntzazerbitzuak/telp

1.2. Euskara ikasteko beharra

Etorkin askok ez dute izaten euskara ikasteak dituen onuren berri. Gainera, jende askok gaztelaniara bideratzen ditu zuzen-zuzenean, hemengo hizkuntzei eta aukerei buruzko batere informaziorik eman gabe. Horregatik, harreragileon egitekoa da **argudio** sendo eta **erakargarriak** ematea, etorkinak euskarara hurbil daitezen eta, batez ere seme-alabek, baina baita eurek ere, euskara ikas dezaten (eta euskararen aukera ez dadin tentsio iturri bihurtu). Hona hemen zenbait argudio:

- a) Euskal Herrian gero eta guraso gehiagok erabakitzen dute seme-alabak euskarazko ikas ereduari sartzea; bertakoontzat hobea bada eredu hori, kanpotik etorritakoentzat ere hala izango da.
- b) Seme-alabek euskaraz ikasten badute, gurasoei ondo etorriko zaie euskaraz jakitea etxeko lanekin-eta laguntzeko, baina argi utzita gurasoek euskaraz jakitea ez dela ezinbestekoa seme-alabek euskaraz ikas dezaten.
- c) Euskaraz jakitea lana aurkitzeko lagungarri izan liteke, eta batzuetan ezinbestekoa.
- d) Hemengo jendearetik enpatia eman dezake euskarak, izan ere, etorkin batek euskaraz egitea edo euskararekiko interesa eta jarrera ona izatea asko baloratzen da, eta bertakoekiko

errespetu eta hurbiltasunezko keinu handitzat hartzen da, eta beraien lehen hizkuntzarekiko jakin-mina, errespetua eta interesa ere pizten du euren artean zein euskaldunen artean.

- e) Beste lurralde batzuetan ez dagoen tresna da euskara, inklusio soziala bultzatzeko. Izan ere, Madrilan bizi den marokoar edo ekuadortar bati oso zaila egingo zaio inork bera bertako herritartzat hartzea gaztelaniaz jakiteagatik soilik; Euskal Herrian, ordea, euskaraz dakien edonor euskalduna da eta hori aukera handia da integratzeko.

Argudio horien guztien indarra egoera soziolinguistikoaren arabera izango da: zenbat eta presentzia handiagoa izan euskarak, orduan eta indar handiagoa hartuko dute argudiook. Lehenik eta behin, gure lanik garrantzitsuena euskarari buruzko informazioa ematea izango da, seme-alabak euskarazko ereduari matrikula ditzaten eta eurek ikasteko zein aukera dagoen jakin dezaten.



Helburuak >

- > Euskarak ematen dituen aukeren berri ematea.
- > Seme-alabak euskarazko ereduari matrikula ditzaten bultzatzea.
- > Euskaraz ikasteko ateak zabaltzea.



1 tresna. Euskara non ikasi.

Euskaltegiak

Euskal Herri osoko euskaltegi sare guztietako zentzori buruzko informazioa.

www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/xtra_euskara_aprende/eu_1844/xtra_euskara_aprende_e.html#euskaltegiak

2 tresna. Etorkinentzako euskara ikastaroak.

AISA

AISA harrera ikastaroen xedea da etorkinak euskara ikastera bultzatzea. Helburu horrekin, 2004tik AISA harrera ikastaro linguistikoak antolatu dira hainbat tokitan. Harrera ikastaro horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinentzat diseinatu dira bereziki; 60 orduko ikastaro horietan berariaz sortutako ikasmaterialak erabiltzen dira: AISA ikasmaterialen bilduma.

www.habe.euskadi.net/s23-4728/eu/contenidos/noticia/aisa/eu_12745/aisa.html

3 tresna. Euskaraz hitz egiteko programa.

Mintzapraktika

Mintzapraktika programa euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohitura ez duten pertsonekin elkartzean datza.

Webgune honetan Euskal Herri osoko mintzapraktika programei buruzko informazioa dago, eta material lagungarria.

www.mintzapraktika.org

1.3. Hizkuntz harreraren laguntzeko baliabideak


Askotan pentsatzen da, nahiz eta uste okerra izan, hizkuntz harrera egitea euskara irakasleen egitekoa dela soilik. Egiazki, etorkinen harreraren dihardugun **guztionean egitekoa da hizkuntz harrera** bultzatzea, herritar guztien laguntzarekin.

Hori dela eta, lankide batzuek etorkinekin euskara guztiz albo batera uzten badute (sarritan Euskal Herrian euskararik egon ere ez balego bezalaxe jokatuz), horrek dakartzan ondorioak zein diren azaldu behar diegu, ahalik eta modurik onenean:

- Euskarara hurbil daitezen eta euskara ikas dezaten egiten diren ahaleginen eraginkortasuna urritzen du.
- Beste lankide batzuek euskararen alde egiten diharduten lanaren aurka egiten du.

Gainera, Interneten dauden baliabideak eta tresnak erakusten ahal dizkiegu euskarazko lana errazteko:

- Informazio orokorra eta hizkuntzari buruzko zalantzak.
- Irakaskuntzari buruzko baliabideak.
- Familiekin komunikatzea erraztekoak: itzulpen zerbitzuak, interneteko itzultzaile automatikoak eta abar.



Helburuak >

- > Hizkuntz harrerarako tresnak ezagutzea.
- > Baliabide publikoen eraginkortasuna areagotzea.
- > Etorkinei harrera egiteko lanean koordinatuta jardutea.



1 tresna. **Euskarari buruzko** **zalantzen guneak.**

a) JAGONET

Euskaltzaindiaren kontsulta eta aholku zerbitzua da, euskararen erabilera zuzena eta egokia eragiteko, profesionalentzat. Zerbitzu honen bidez hizkuntzaren arlo desberdinetako Euskaltzaindiaren erabakiak kontsulta daitezke: Gramatika, Onomastika/Toponimia, Lexikografia... Bilatzen duena aurkitzen ez badu, erabiltzaileak bere zalantza Euskaltzaindiari bidal diezaioke. JAGONET zerbitzua euskaraz eskaintzen da, izendegiak izan ezik, horiek gaztelaniaz eta frantsesez ere kontsulta baitaitezke.

www.euskaltzaindia.net/jagonet

b) Duda-muda

HAEE-IVAPek herritarrei eta erakundeei doan eskaintzen dien kontsulta zerbitzua da Duda-muda. Hona bere helburua: administrazio eta lege arloko terminologian eta hizkeran sor daitezkeen zalantzak argitzen saiatzea. Ez da, beraz, datu base terminologiko bat, ikerketa talde batek eskaintako zerbitzua baizik.

www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/dudamuda/eu_3803/dudamuda_e.html



2 tresna.
Hezkuntza sailen
webguneak.

a) Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saila

Orrialde honetan hezkuntza baliabideak eta antzeko webguneei buruzko informazioak jasotzen dira, irakasleei euren lanean laguntzeko asmoz. Besteak beste, aniztasunari eta euskarari buruzko atalak ditu.

www.educacion.navarra.es/portal/Irakasleen+Gida?languageld=6

b) Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Ikasle etorkinei buruzko materiala: inklusiorako programari buruzko informazioa, diru laguntzen deialdiak, araudiak eta familientzako informazioa, hainbat hizkuntzatan.

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif8/eu_2083/f8_e.html

3 tresna.
Etorkinekin komunikatzeko
itzulpen zerbitzuak.

a) Bitartekaritza programa (Nafarroako Gobernu)

Besteak beste, hainbat hizkuntzatarako itzulpen zerbitzua eskaintzen dute.

www.navarra.es/home_eu/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Relaciones+Institucionales+y+Portavoz+del+Gobierno/Organigrama/EI+departamento/Oficina+Atencion+a+la+Inmigracion/Programas/Mediacion.htm

b) Hainbat udaletako programak

Udal batzuk itzultzaileen lan poltsak dituzte, batez ere euren langileentzat. Adibidez, Gasteizko Norabide izeneko zerbitzuak 33 hizkuntzatarako itzulpena eta interpretazioa eskaintzen ditu udaleko langileentzat:

www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&uid=entuo_3_2&idioma=eu



1. Lehen harrera

1.4. Lehen harrera

Egiten den lehen harremanean **oso garrantzitsua da komunikazioa ahalik eta onena izatea**. Izan ere, alde batetik, ahalik eta informazio argiena eman behar diegu zerbitzuari buruz eta, beste alde batetik, egiten zaien elkarrizketa euren egoera ezagutzeko baliatu behar dugu, eta hitz egiten dituzten hizkuntzak zein diren jakiteko; gainera, gaztetxoak badaude tartean, eskolako maila zein duten jakin beharko dugu. Zenbat eta informazio sakonagoa eduki, orduan eta hobeto izango da hainbat akats ez egiteko eta estereotipoak baztertzeko (adibidez, *“marokoa guztiek dakite arabieraz edo guztien lehen hizkuntza arabiera da”*) eta erabili beharreko balibideak egokitze.

Horretaz gain, lehen harreman horretan, **euskarara hurbiltzeko aprobetxatuko** dugu:

- a) Lehen hitza euskaraz egitea komeni da, aurreko atalean esan dugun bezala; kasu guztietan euskarazko agurrak eta euren hizkuntzetakoak erabiliko ditugu.
- b) Betiere solaskidearen erreakzioak ikusiko ditugu, eta horien arabera jokatu dugu; geure erreakzioak ere ahalik eta ondoen ezagutzea eta kontrolatzea komeni zaigu.
- c) Hizkuntzaz aldatu behar badugu, solaskideak eskatu digulako edo egoera komunikatiboa hobetzeko, komunikazioa ondoen bermatzen duen hizkuntza erabiltzen saiatuko gara. Kasu askotan, jakina, ez da izaten gaztelania (edo frantsesa, Iparraldean) komunikaziorik onena bermatzen duen hizkuntza.

- d) Kasuren batzuetan itzulpen zerbitzua erabili beharko dugu. Ahal dela euskarara egingo da itzulpena, euskararen presentzia handitzeko.
- e) Familiei adierazi behar zaie seme-alabek euskaraz ikastearen garrantzia eta luzarora begira dituen onurak, eta jakinarazi D eremuan matrikulatzea dela biderik eraginkorrena horretarako. Helduek euskaraz ikasteko aukerak ere zein diren jakin beharko lukete.

Idatzizko materialak prestatzerakoan, kontuan hartzeko hainbat proposamen:

- a) Ziurtatu beti euskarazko testua ere agertzen dela.
- b) Hizkuntza askoko idatzietan lehentasuna eman euskarazkoari beste guztien aurretik jarrita, letra handiagoekin, kolorez nabarmenduta eta abar.
- c) Kontuan hartu hartzailea; irudiekin arindu eta ulergarriago egin testuak.
- d) Esaldi laburrak, argiak eta ondo eginak erabili.

Kasu guztietan ahaleginak egingo ditugu euren egoera ulertzeko eta euren jatorrizko kultura ezagutzeko, gu beraiengana hurbiltzeak asko lagun dezakeelako eurak ere gurera hurbiltzea.



Helburuak >

- > Familiarekin komunikazio ona izatea.
- > Euskara hizkuntza erabilgarri gisa aurkeztea.
- > Gaztetxoak eta familia osoa euskarara hurbiltzea.

1 tresna. Harrera planak.

Ikasle etorkinentzat harrera planak egiteko orientabideak.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskoletan harrera planak egiteko prestatutako materiala da. Harrera plan baten adibidea ere ikus daiteke bertan.

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dif8/eu_2083/f8_e.html

2 tresna. Etorkinek euskara ikasteko materialak.

a) AISA programako materialak

HABEK etorkinentzat bereziki diseinatutako materialak dira.

www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/es/user/anon/page/ikasmaterialadetalle?gid=149297

b) Etorkinentzako irudizko hiztegia

AISA programaren barruan prestatu den hiztegi honek zazpi hizkuntza hartzen ditu kontuan, tartean arabiera, txinera eta tamazighta, euskara eta Europako beste hizkuntza batzuek gain.

<http://mailserver.lanabes.com/AISA2//>

c) Eskuko hiztegia

Bermeoko Udalak zortzi hizkuntzarekin ateratako hiztegi txikia, tartean daude arabiera eta errumaniera ere, euskara eta Europako beste hizkuntza batzuek gain.

http://docs.google.com/fileview?id=0B_uaeBvU0Z_-YzJlYTVhODQtZjA1NS00YmNjLThINDctMTk3NWE4YTliZjBi&hl=en



1. Lehen harrera

1.5. Lan arloko hizkuntz integrazioa

Euskaraz jakitea **lan arlorako gaitasun oso baliagarria da** etorkinentzat, hainbat arrazoiengatik:

- Irakaskuntzako hizkuntza nagusia da toki askotan; euskarazko eredu matrikulazioa goraka doa urtez urte.
- Hainbat aukera ematen du: lanpostu batzuetarako nahitaez jakin behar da euskaraz, eta beste batzuetan merezimendu gisa baloratzen da; beraz, euskaraz ez dakiena ezin izango da lanpostu horietara iritsi, edo zailagoa egingo zaio.
- Lan arloko harremanak errazten ditu, lankide euskaldunekin euskaraz jarduteko aukera ematen duelako.
- Herritar guztien eskubidea da, baita langile zein kontsumitzaile gisa, legeak hala aitortzen du euskara ofiziala den lurraldeetan eta hala izan beharko luke gainerako eremuetan ere.
- Euskararen lege egoera desberdina den arren (soilik EAEn dituzte kontsumitzaileek hizkuntz eskubideak nola edo hala legez aitortuta), jendaurreko lanetan bezeroei zerbitzua euskaraz eman ahal izatea beti izango da lagungarria lana aurkitzeko; gutxienez euskaraz ulertzea iritsiz gero, bezeroei euskaraz egiteko eskubidea gauzatzeko aukera emango zaie; euskaraz jakinez gero, ematen den zerbitzuaren kalitatea hobetu egiten da.
- Lan munduan oraindik ere euskararen egoera larri samarra izan arren, gero eta gehiago sartzen ari da, besteak beste enpresetan egiten ari diren ahaleginen ondorioz (esate baterako, lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko planak), euskarak aurrera egin dezan ezinbestekoa duelako lan munduan indarra izatea.

Informazio hori guztia etorkinei azaltzea komeni da, eskolan dabiltzanei eta baita lanean edo lan bila ari direnei ere. Gainera, **garrantzitsua da irakasleei, hezitzaileei eta bestelako harreragileei** transmititzea etorkinak euskarara hurbiltzeko ez badugu ezer egiten, edo eskolan edo euskaltegian **ikasten duten euskara praktikatzeko aukerarik ez badiegu ematen, desberdintasunak sortzen ari garela**. Izan ere, euskaraz ondo dakiten gazteek lan mundura iristeko aukera gehiago izango dituzte.



Helburuak >

- > Espzizitu egitea euskara aukera bat dela lan merkatuan sartu ahal izateko eta, horrenbestez, gizarteratzeko.
- > Etorkinek lan merkatuan baldintza berberetan jardun ahal izan dezaten laguntzea.



1 tresna.
Lan munduko
euskara planak.

Azken hamabost urtean lan handia egin da enpresetan eta bestelako erakundeetan **euskararen erabilera bultzatzeko**, batez ere euskara planen bidez. Enpresa askotan asko aurreratu da arlo horretan, nahiz eta oraindik ere enpresa guztien oso zati txikia izan euskara plana dutenak. Horixe da, hain zuzen ere, EMUN Kooperatibaren jarduera nagusia.

Hainbat erakundek ematen dute aholkularitza lan munduan euskara planak egiteko. Hona hemen aholkularitzen zerrenda:

www.euskara.euskadi.net/r59-14154/eu/contenidos/informacion/baliabideak/eu_00132/aholkularitza_enpresak.html

2 tresna.
Lan mundurako
hizkuntz baliabideak.

a) **LANHITZ**

Eusko Jaurlaritzaren programa arlo sozioekonomikoan euskara bultzatzeko. Diru laguntzei eta metodologiari buruzko informazioa eta tresnak (adibidez, diagnostikoa egiteko tresna informatikoa). Lan munduan euskara errazago erabiltzeko baliabideak ere badaude gunen honetan.

www.euskara.euskadi.net/r59-11477/eu/

b) **LANTALAN**

Lan mundurako baliabideak eta tresnak (agiri ereduak, hiztegiak, kontsultaguneak...), albisteak, artikulua... Harpidetza egiteko aukera ematen du argitaratzen diren albisteak jaso ahal izateko.

www.lantalan.com

2. Euskararen i(ra)kaskuntza





2.1. Euskararen didaktika

Euskara irakasteko, kontuan hartu behar da zein metodologia erabiliko den, zein irakasle mota dugun eta nolako materialak erabiliko ditugun gelan.

a) Metodologia

Gaur egun, hainbat ikerketaren arabera, **ikuspegi komunikatiboa** da metodologiarik eraginkorrena hizkuntzak irakasteko (esate baterako, Europako Kontseiluak egiten dituen programa guztiek hori hartzen dute oinarri gisa, eta Euskal Herrian ere aspalditik aplikatzen da euskaltegietan).

Metodologia horren arabera, edukiak lotuta egon behar dira ikasleen motibazio, interes eta ezaugarri pertsonalekin; gelan egiten diren jarduerak ahalik eta errealean izan behar dira; hizkuntza interakziorako tresna izan behar da, helburua izan beharrean, eta oinarrizko lau hizkuntz gaitasunak landu behar dira, bakoitza bere aldetik eta besteekin batera (ahozko eta idatzizko ulermena, mintzamina eta idazmena).

Ikuspegi komunikatiboaren arabera, batez ere erabiliz ikasten da hizkuntza. Hori dela eta, irakasleak, irakasleak eta inguru guztia sentsibilizatu behar da hizkuntzaren erabilera normalaren beharrari dagokionez, eragile bakoitza hizkuntzaren inguruan duen zereginaz kontziente izan dadin.

Irakasle-hezitzaileok eta etorkinekin dihardugun guztiok ikasleen ulermen mailarekin bat datorren hizkera erabili beharko dugu, eta eurekin hitz egiten dugunean, zuzenketak egitekotan, kontu handiz egingo dizkiegu. Oso lagungarria da ikaslearen ama hizkuntzari buruz zerbait jakitea euskararen i(r)a)kaskuntza prozesua eraginkorragoa izan dadin.

b) Ikasle mota

Idazten eta irakurtzen ikasi behar duten ikasleekin honako hauek izan behar dira kontuan:

- Ahozkoan gutxieneko maila bat behar da idazten hasi aurretik (nahiz eta aurrera egin ahala biak elkarrekin batera joan).
- Irudi askoko materialak erabili behar dira, ikasleen adinera egokituak (maiz, irudi askoko materialak haurrentzako izaten dira eta ez dira egokiak helduekin erabiltzeko).

Irakaskuntza arautuko ikasleekin kontuan hartu behar dira honako hauek:

- Euskara ikasteko arazo gutxiago izaten dute haur hezkuntzan edo lehen hezkuntzako lehen zikloan hasten direnek bigarren hezkuntzara iristen direnek baino.
- Lehen hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera arlo instrumentalak dira ikaskuntza askoren abiapuntua. Euskaraz gutxiago dakiten ikasleek besteek bezalaxe ikas dezaten, eskolan gehiago landu behar da euskara horrelako ikasleekin.


c) Materialak

Interneten badira hainbat material honen inguruan.



Helburuak >

- > Hizkuntzaren i(ra)kaskuntzan ikuspegi komunikatiboa erabiltzea.
- > Ikaslearen lehen hizkuntza ezagutzea.
- > Hizkuntzaren didaktika ikasleen ezaugarrietara egokitzea.
- > Ikasleen beharretara egokitutako materialak aukeratzea.



1 tresna. Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa.

Dokumentu hau **Europako Kontseiluak** egina da, eta Europa mailako erreferentzia garrantzitsua da hizkuntzen i(ra)kaskuntzan oinarri bateratua ezartzeko eta mailak egituratzeko. Edukiak, helburuak eta irakaskuntza metodoak finkatzeko balio du.

www.habe.euskadi.net/s23-4728/es/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/euro_markoa.html

2 tresna. Euskara irakasteko materialak eta metodologia.

a) **Ikasbil**

Webgune honetan hainbat material dago euskara eskoletan erabiltzeko. Metodologiari buruzko artikulua ere badaude. Euskara irakasle zein ikasleentzako material eta informazio baliagarria dago.

www.ikasbil.net

b) **Nafarroako Gobernuaren gunea**

Euskararen didaktikari buruzko materiala eta euskarazko irakaskuntzari buruzko informazioa dago gune honetan.

www.educacion.navarra.es/portal/Irakasleen+Gida/Euskararen+didaktika



2.2. Kultur eta hizkuntz aniztasunaren trataera

Ikasgeletan, kiroldegietan, aisialdiko taldeetan eta abarretan gero eta aniztasun handiagoa dago kultura eta hizkuntzetan. Aniztasun hori arazo gisa ikusi beharrean, **aberastasun eta aukera gisa hartu beharko genuke**. Izan ere, jatorri oso desberdinetako jendeari harrera egiteak:

- a) Erronka handia esan nahi du etorkinen harreragile lanetan dihardugun guztiontzat.
- b) Urruneko hizkuntzak, kulturak, pentsamoldeak eta eguneroko egoerei aurre egiteko modu berriak ezagutzeko bidea ematen digu.

Hezkuntza alorretik ezinbestekoa da praktikan jartzea kulturarteko hezkuntza. Alegia, ikasleei balioak transmititzea norberarenetik desberdinak diren mundu ikuspegiak ulertzen laguntzeko, betiere harreman marko komun baten barruan. Honako **proposamen** hauek erabilgarriak izan litezke:

- a) Ikasleen jatorrizko kulturetako ohiturak eta ezaugarriak erakusteko ekintzak antola ditzakegu, beraiek gure irakasle izan daitezen eskatuz eta ahalbidetuz. Horrelakoetan kontuz ibili behar da azaleko folklореkerian ez erortzeko eta topiko eta estereotipoak ez indartzeko. Oreka aurkitzea komeni da, alde batetik, etorkinak intimitaterako eta gizartean beste bat gehiago izateko duen eskubidea errespetatuz, eta, beste alde batetik, etorkinen jatorrizko kulturak kontuan hartuz. Alegia, euren ohiturak kontuan hartu behar dira, baina etengabe euren jatorria zein den gogoratzen ibili gabe. Integrazio prozesuan zehar, eta etorkinak bizi dituen egoeren eta sentimenduen arabera, bi kontzeptu horien arteko oreka joan behar da bilatzen.
- b) Ez dira gehiegi ere azpimarratu behar gurearengandik desberdinak diren kultur

ezaugarriak, horrek oraindik ere gehiago urruntzen gaituelako elkarrengandik. Etorkinekin egiten diren ekintza guztietan kultur desberdintasunekin batera elkarrekin ditugun antzekotasunak erakustea eta indartzea komeni da. Tradizio batzuk kultura eta erlijio askotan ospatzen dira eta, nahiz eta ikuspegi desberdinak erabili, jatorri berbera dute. Horren adibide dira neguko eta udako solstizioak edo urteberri eguna.

- c) Euskal Herriko kultur eta hizkuntz aniztasunari buruzko informazioarekin batera, euskarari eta euskal kulturari buruzko informazioa eman beharko litzateke. Gurean gaztelaniak eta ingelesak duen garrantziarekin batera, arabierak, txinerak, wolofarak edo errumanierak duen garrantziari buruz jardun beharko genuke, izan ere, gurean bizi den jende askoren hizkuntzak dira horiek. Horrekin batera azal dezakegu bertakoa euskara dela, beste inon ez dela hitz egiten antzekorik, eta euskarak batu gaitzakeela guztiok.
- d) Tokian tokiko hizkuntzak hitz egitearen garrantzia transmititzea euskara bezala gutxiagotuta dauden hizkuntzekiko ardura pizteko modu bat da. Azaldu behar genuke, adibidez, gurean bezala jende asko dagoela hizkuntza gutxiagotuak dituztenak lehen hizkuntzat munduko beste leku gehienetan ere (Afrika iparraldean tamazighta, Hego Ameriketan kitxua...). Zenbait etorkin komunitate horietakoak direnez, horrek hizkuntza horretako hiztunen autoestimua sendotzen lagun dezake, eta bertakoek eta etorkinek Euskal Herrian dagoen aniztasunari buruz duten ikuspegia zabaltzen du.



2. Euskararen i(ra)kaskuntza

Euskarari buruzko oinarrizko datu batzuk:

- **Lege egoera:** euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako eremu euskaldunean, eskubide gisa. Nafarroako gainerako bi eremuetan eta Iparraldean, berriz, ez da ofiziala. Espainiako Konstituzioak gaztelaniaz jakitea betebeharra dela dio, eta beste horrenbeste egiten du Frantziakoak frantsesarekin.
- **Hiztun kopurua:** Euskal Herriak hiru milioi biztanle ditu gutxi gorabehera. Horietatik milioi batek baino gehiagok ulertzen du euskaraz eta 700.000 inguruk dakite euskaraz hitz egiten. Azken hamarkadetan goraka doa hiztun kopurua; gehien gazteen artean eta EAEn igo da euskaldun kopurua.
- **Erabilera:** 2006an egindako kale neurketan elkarrizketen %14,2 euskaraz egin ziren. Gero eta gehiago egiten da euskaraz, batez ere Gipuzkoan; Araban, Bizkaian eta Nafarroan erabilerari eutsi egiten zaio eta Iparraldean etengabe doa beheraka. Alderdiri onena da gehien gazteek egiten dutela euskaraz; dena den, euskaraz dakitenen kopurua erabilera baino askoz gehiago hazi da.

Helburuak >

- > Kultur eta hizkuntz aniztasuna aitortu eta errespetatzea.
- > Beste kultura eta hizkuntza batzuk dituztenekin batera bizitzen ikastea.
- > Tokian tokiko hizkuntzak baloratzea.





1 tresna.
Kulturarteko heziketari
buruzko materialak.

a) STEE-EILAS

Irakaskuntzako sindikatu honen webgunean kulturarteko hezkuntzarako baliabideen zerrenda luzea dago: pelikulak, jolasak, webguneak, ipuinak...

www.stee-eilas.org/dok/arloak/gizarte_mugi/inmigrazioa/090313%20baliabide%20didaktikoen%20gida.pdf

b) HIPIWIKI

Hizkuntza indartzeko proiektuko irakasleentzako (HIPI) baliabideak eta orientabideak. Interneteko esteka multzo handia jasotzen du etorkinen eta euskararen inguruan: hizkuntza indartzeko baliabideak (hasierako ebaluazioa egiteko materiala, hizkuntz jolasak, hiztegiak, ikastetxeetako esperientziak, metodologia, programazioa, proiektuak...), baita kulturartekotasunari buruzkoak ere.

www.hipiwiki.wikispaces.com

c) SANDUK gida didaktikoa

Hezitzaileak kulturartekotasunean eta immigrazioaren inguruan prestatzeko gida didaktiko hau aurretik Katalunian argitaratutakoaren euskarazko egokitzapena da. Gidaren helburua hezitzaileak kulturartekotasun eta immigrazio gaietan heztea da, ikasleak eta gazte taldeak balioetan formatzen laguntzeko, eta eurekiko giro kultural eta ideologiko desberdina duten kideekin harremana eta ulermena errazteko.

www.unescoetxea.org/base/hezkuntza.php?id_atala=4&id_azpiatala=380&hizk=eu&id_kont=1136

d) Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saila

Kulturaniztasunari buruzko gune honetan material asko dago gaiaren inguruan: ikasle etorkinentzako harrera planak, familiei emateko informazioa, aniztasunari erantzuteko planak egiteko orientabideak, hasierako ebaluaziorako materiala, gogoetak, bibliografia.

www.educacion.navarra.es/portal/Irakasleen+Gida/Kultur+aniztasuna



2 tresna. Euskararen egoera soziolinguistikoa ezagutzekoak.

a) Soziolinguistika Klusterra

Euskara kontuetan alor aplikatuan eta unibertsitateetan diharduten eragileen arteko bilgune izateko asmoarekin sortu zen erakunde hau. Euskararen egoerari eta esperientziei buruzko hainbat ikerketa proiektu, argitalpen eta formazio saio antolatzen dituzte. Besteak beste, bost urtean behin euskararen kale neurketa egiten dute Euskal Herri osoan.

www.soziolinguistika.org

b) Inkesta Soziolinguistikoa

Inkesta hau bost urtean behin egiten du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak (HPS) Euskal Herri osoan, batzuetan Nafarroako eta Iparraldeko erakunde publikoekin elkarlanean. Euskararen ezagutza, erabilera eta sustapenari buruzko iritzien inguruko datuak jasotzen ditu.

www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/libro/iv_inkesta_soziol/eu_ink/adjuntos/IVInkesta%28Eusk%29.pdf

3 tresna. Munduko hizkuntzei buruzko informazioa.

a) Amarauna

Unesco Etxearen proiektu honen helburua munduko hizkuntzei buruzko informazioa jaso eta Interneten eskuragarri jartzea da

www.amarauna-languages.com

b) Munduko hizkuntzen txostena

UNESCOk egindako liburua, munduko hizkuntzen egoerari buruz.

www.unescoetxea.org/dokumentuak/Hizkuntzen_Txostena_Laburpena_EuskEngl.pdf

c) Garabide

Gobernuz kanpoko erakunde honek garapen proiektuak egiten ditu beste herrialde batzuetan, batez ere herri indigenekin, beraien hizkuntzen biziberritzea bultzatzeko. Euskararen inguruko esperientziak ezagutarazteko truke programak ere antolatzen ditu urtero-urtero.

www.garabide.org



2.3. Ikasle etorkinen eskolako parte hartzea eta arrakasta

Irakaskuntza arautuan hizkuntza behar beste ez jakiteak eskolan irakasten diren edukiekiko interesa galtzea eragin dezake, eta eskolako absentismoa eta porrota bultzatu:

- Etorkina izatea, berez, ez da nahikoa arrazoi hizkuntza ikasteko zailtasunak izateko. Ikasle etorkin batzuek, gainera, hizkuntza bat baino gehiago egiten dutenez, erraztasun handia izan dezakete hizkuntza gehiago ikasteko ere.
- Askotan, ikasle etorkinen beharrak eta ezaugarriak ez direnez behar bezala tratatzen, ikasle horiek urrundu egiten dira eskolatik, eta absentismo arrisku handiagoa izaten dute.
- Gainera, sarritan oso euskara gutxi entzungo dute etorkinek inguruan eta, horregatik, zaila egingo zaie euskararekiko lotura afektiborik sortzea.

Horiek guztiak kontuan hartuta, ume eta gazte etorkinen harreran dihardugun guztiok, beraien hizkuntz integrazioan dugun eraginagatik, **ahaleginak egin behar ditugu euskararekiko lotura afektiboa sor dadin**. Hona hemen zenbait **estrategia**:

- Ume eta gazteen autoestimua indartu, onartuak senti daitezten lagundu eta saiakerak egin ez dezaten etsi. Hori egiteko moduetariko bat da beraien kultura eta hizkuntzak baloratzea, eta beraiek euren kulturaren protagonista eta gure irakasle bihurtzea.

- Ez galdu familiekiko harremana, gurasoak ere euskarara ahalik eta gehien hurbiltzen saiatu, eta seme-alabek euskara ikastearen garrantziaz jabetzen lagundu. Gurasoen jarrerak eragin handia izan dezake seme-alaben motibazioan, eta garrantzitsua da eskolan parte hartze aktiboa izatea.
- I(r)a(k)skuntza prozedurak ikasleetara egokitu eta ez alderantziz. Kontuan izan behar dugu hizkuntza bat ikasteko denbora behar dela. Ikasleak behar beste ez duela aurreratzen iruditzen bazaigu, baliteke agian geure aurreikuspenak handiegiak izatea. Hori horrela bada, eragin negatiboa izan dezake beraien errendimenduan. Ikaskuntza prozesua hobetzeko moduetariko bat izan daiteke beraien hizkuntzei eta kulturei buruz gehiago jakitea. Adibidez, arabieraz eta txineraz ez dute desberdintzen maiuskulen eta minuskulen artean; ful eta wolofera hizkuntzek bosnan-bosnan kontaktzen dute (esate baterako, zazpi esateko “bost eta bi” esaten dute, edo zortzi esateko, “bost eta hiru”).

2. Euskararen i(ra)kaskuntza



Helburuak >

- > Euskara ikasteko gogoia sustatzea.
- > Autoestimua eta norberaren irudi positiboa sendotzea.
- > Familiak ere eskolako ikaskuntza prozesuan inplikatzea.
- > Ikaskuntza prozesuko aurrerapenak behar bezala ebaluatzea.



1 tresna. Euskal Girotze Barnetegiak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko egonaldi horien helburua da ondo pasatu eta euskararen erabileran eragitea, euskararen aldeko jarrerak sortu eta bultzatzea, erabiltzeko gogoia piztu eta indartzea. Zentro horietan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako 8-14 urte bitarteko ikasleak izaten dira, gela osoak, eta 25 ikasle ingurukoak.

www.barnetegiak.net

2 tresna. Ikasle iritsi berrientzako materialak.

a) Elkarrekin (Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen ataria)

Webgune honetan material bilduma handia dago ikasle iritsi berriekin erabiltzeko. Interneteko baliabide askotarako estekak daude: jolasak, hizkuntza lantzeko materialak, ebaluazioa, irakurgaiak, unitate didaktikoak, hiztegiak...

www.elkarrekin.org

b) Zubirik zubi

Lehen hezkuntzan etorkinekin erabiltzeko materialak. Badira zenbait material ikasle iritsi berrien harrera prestatu, egin eta ebaluatzeko.

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/zubirik_zubi/materiales_educacion_primaria/HASIERA.htm

c) Lukene sugedorri txirene

Ikasle iritsi berriekin euskara lantzeko ipuinak.

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/zubirik_zubi/Lukene/HASIERA.htm



2.4. Aisialdian euskara ikastea

Gaur egun, aisialdiko erakundeetan (kiroldegi, elkarte, udaleku, ludoteka...) eta guneetan (plazak eta kaleak...) hausnarketa sakona egin behar da, eta irizpide argiak ezarri behar dira euskarak izan behar duen tratamenduari buruz eta bertan ari diren profesionalen hizkuntz ereduari buruz, hainbat arrazoiengatik:

- a) Gune horiek duten eragina hezkuntzan eta gizarte eta hizkuntz integrazioan oso estu lotuta dago eskolak egiten duenarekin.
- b) Hizkuntz integrazioarako aukera ezin hobea eskaintzen dute: aisialdiaren bidez euskaraz errazago ikasten dute, hizkuntza modu naturalean eta espontaneoan ikasten baita euskaraz hitz eta jolas eginez, batez ere euskaraz egiten duten ume eta gazteekin baldin bada, emozionalki ondo pasatzen dutelako eta esperientzia baikorrak izaten dituztelako hizkuntzaren inguruan. Hori ez badugu kontuan hartzen, etorkinei euskarara hurbiltzeko aukera ezin hobea ukatzen ari gaitzaizkie.

Garrantzitsua da aisialdiko erakundeak mezu hau bidaltzea euren boluntarioei ere, sarritan ez baita behar beste lantzen hizkuntzaren gaia aisialdian diharduten boluntarioekin.

Hona hemen zenbait **proposamen aisialdiko langileentzat, etorkinek euskara praktikatu ahal izan dezaten antolatzen dituzten ekintzetan:**

- a) Euskararekiko leialtasun handiz jokatu. Lehen hitza beti euskaraz egin eta beraien hizkuntzako agurrak ere erabili; solaskideak euskaraz jarduteko, nahiz eta besteak erdaraz erantzun, batez ere euskara ikasten ari bada. Ez dugu hizkuntzaz aldatuko harik eta, gutxienez, solaskideak eskatu arte edo harik eta geuk ikusi arte beste bideren bat behar dugula komunikazioa bermatzeko.
- b) Kirol arloan begiraleek euskarazko hiztegia aberastea eta erabiltzea komeni da, hala nola etorkinen hizkuntzetako hitz gutxi batzuk ere. Horretarako, badira zenbait baliabide, adibidez, Interneten.
- c) Euskarazko jolasak eta aisialdiko ekintzak hautatu. Badira horretarako zenbait material lagungarri.
- d) Euskarari eta euskal kulturari buruzko ekimenak antolatu, ahal den guztietan euskaraz, eta ahal bada komunitate bakoitzean eredu den pertsonaren laguntzarekin.



Helburuak >

- > Aisialdiko ekintzak antolatzen dituztenen artean hizkuntz irizpideak ezartzea.
- > Ume eta gazte etorkinei euskaraz egin behararen inguruan sentsibilizatzea aisialdiko eragileak.
- > Ahalik eta aisialdiko ekintza gehien antolatzea euskaraz eta euskara ikasteko.



1 tresna.

Aisialdirako materialak.

a) AISIA

Aisialdirako euskarazko materialak daude orrialde honetan (jolasak, ikastaroak, argitalpenak...). Gipuzkoako Urtxintxa Eskolaren gunea da.

www.aisia.net

b) Bizkaiko URTXINTXA eskola

Hainbat material dute euren webgunean. Besteak beste, argitalpenen artean bi hauek daude: "Aisialdian euskaraz" eta "Kulturarteko aisialdia".

www.urtxintxaeskola.org

c) Astialdi Foroa

Aisialdian euskara lantzeko gomendio batzuk eskaintzen dituzte.

www.astialdiforoa.org/?q=eu/node/7

2 tresna.

Euskarazko udalekuak.

Euskara elkarteek udalekuak antolatzen dituzte euskaraz.

www.topagunea.org/index.php?option=com_content&view=article&id=616

3. Gizarte harremanak





3.1. Etorkinekiko harremanak

Harremanen bidezko integrazioa lortzeko aldeko giroa sortzen badugu, euskara ikasteko gogoia ere handitu egin ahal izango dugu. Hona hemen iradokizun batzuk:

- a) Etorkinekiko harremanetan kontuz ibili behar da jarrera paternalistegiak edo distantzia handiegia jartzearekin; baita hizkuntzaren i(r)a kaskuntza prozesuari dagokionez ere. Sarritan, ez ditugu behar beste baloratzen beraien gaitasunak (*"gizajoak, eta gainera euskaraz ikastea nahi dugu"*), edo ez zaie euskaraz egiten aurreiritziengatik (*"nola egingo du, bada, kanpotar batek euskaraz?"*). Kontuan izan behar dugu, gainera, neska-mutiko askok hizkuntza bat baino gehiago dakitela dagoeneko, eta horregatik ez zaiela arraroa egiten bertako beste hizkuntzaren bat ikasi behar izatea, nazioarteko besteren batekin batera.
- b) Immigrazioari buruzko topikoak hautsi behar dira eta beraien errealitatera hurbiltzen saiatu, maiz jarrera arrazistak eta talde batzuen marjinazioa eragin ditzaketelako. Adibidez, *"Ez dute integratu nahi"* bezalako topikoak

harrerarekin zerikusia duten eremu batzuetan ekintza baztertzailerak zurrizko balio dezakete. Izan ere, gero eta interes handiagoa dago, adibidez, seme-alabak euskarazko ereduatan matrikulatzeko. Beraz, oso garrantzitsua da aurreiritzi horiek agertzen direnean nabarmentzea eta horien oinarri faltsuak agerian uztea, beste harreragile batzuekin zein bestelako herritarrekin ere.

- c) Jatorrizko kultura eta hizkuntza kontuan hartuko dituzten komunikazio estrategiak jar ditzakegu abian. Adibidez:
 - Ondo esan beraien izenak.
 - Beraien hizkuntzetako agurrak eta bestelako zenbait esaldi erabili.
 - Beraien jatorriarekin edo bizitzarekin zerikusia duten gaiak landu.

Helburuak >

- > Etorkinekin berdintasunezko harremanak izan.
- > Aurreiritziak eta topikoak hautsi.
- > Etorkinen kultur eta hizkuntz nortasunera hurbildu.



3.2. Familia etorkinekiko harremanak

Garrantzitsua da **jakitea familiek zer espero duten eta zer pertzepzio duten** euren seme-alaben ikaskuntza prozesuaren inguruan eta euren migrazio prozesuarekiko oro har:

- Ume txikien gurasoekin egoteko, seme-alaben bila datozenen aprobetxa daiteke (eskolako atarian, txangoren batera doazenean, ekintzaren baten bukaeran edo herrian hainbat egoeratan aurkitzen ditugunean...).
- Gurasoak ez direnez seme-alaba haziagoen bila joaten, elkarrizketak jarri ahal izango ditugu. Sarritan, dena den, lan jardun luzeak izaten dituzte eta zaila izaten da geuri komeni zaigun ordutegian egin ahal izatea elkarrizketok. Horregatik, oso garrantzitsua da hasieratik adostea nola funtzionatuko dugun.

Bestalde, familiek **ikusi egin behar dute euren seme-alabak euskara ikasten ari badira hizkuntza hori eraginkorra zaiela**, horrela ume eta gazteen hezkuntzan inplika daitezen eta eurak ere euskara ikastera anima daitezen.

Guraso elkarreetatik, adibidez, hainbat ekimen antola daitezke, betiere guraso etorkinen parte hartzearekin:

- Euskararen inguruan lanean diharduten erakundeekin (herriko euskara taldeak, euskaltegiak...) euskara eskolak edo bestelako ekintzak antolatu euskararen inguruan gurasoentzat.
- Familia etorkinak guraso elkartean parte hartu dezaten inplikatu, albo batera utzi gabe eskolak euskara bultzatzeko egiten dituen ekintza guztiak; horretarako, garrantzitsua izango da elkarreak ahalegina egitea familia horiengana hurbiltzeko.
- Gurasoentzako antolatutako hitzaldiak edo ikastaroak aprobetxatu (sukaldaritzakoak, josten ikastekoak eta abar), euskarari eta euskal kulturari buruzko informazioa emateko eta beraien jatorrizko kultura eta hizkuntza ere ezagutzeko. Oso garrantzitsua da kultur desberdintasunaz gain antzekotasunak ere baloratzea eta indartzea. Dena den, kontuz ibili behar da horrelakoetan azaleko folklorismoan ez erortzeko. Gainera, ez dugu ahaztu behar ekimen integratzaileena guztiak berdintasunez tratatzea dela.

Helburuak >

- > Familien aurreikuspenak zein diren jakitea.
- > Guraso etorkinen parte hartzea handitzea.
- > Familia etorkinek eta bertakoek elkar ezagutzea.





1 tresna. Guraso Elkartek.

Euskal Herriko Guraso Elkartek: EHIGE

Guraso elkarteei buruzko informazioa ematen dute.

www.ehige.org

2 tresna. Ikastetxeetan elkartasuna bultzatzeko esperientziak.

Bizkaiko Guraso Elkartearen ekimena da hau. Ikastetxeetan elkartasuna bultzatzeko egindako esperientziak, baliabideak eta horri buruzko albisteak eta agendako ekitaldiak jasotzen dituzte.

www.sarekide.net

3 tresna. Etorkinei buruzko informazioa.

a) Ikuspegi: EAEko immigrazioari buruzko behatokia

Webgune honetan jasotzen dira gaiari buruzko ikerketak, txostenak, estatistikak eta bestelako dokumentuak.

www.ikuspegi.org

b) Nafarroako Gobernuaren Immigrazioarako Bulegoa

Orrialde horretan aurki daitezke estatistikak, estekak, buletinak eta bestelako argitalpenak gaiaren inguruan.

www.navarra.es/home_eu/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Relaciones+Institucionales+y+Portavoz+del+Gobierno/Organigrama/EI+departamento/Oficina+Atencion+a+la+Inmigracion/



Bibliografia

ANDETXAGA Itziar, GONZÁLEZ Silvia, GONZÁLEZ-CASANOVA Jose Manuel, GUTIÉRREZ Jurgi, PASARÍN Estefanía, RAMÍREZ DE OLANO Iñaki, RICO Ángela eta ZUBIZARRETA Fernando, 2008, *Etorkinek eta errefuxiatuek euskara ikasi eta erabiltzeko duten interesaren azterketa*. CEAR-Euskadi
www.ikuspegi.org/documentos/documentos_externos/Estudio%20Euskera%202008.pdf

BAXOK, Erramun eta COYOS, Jean Baptiste, 2010, *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian - L' enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*. Jagon Saila, 9. zenbakia. AEK-Euskaltzaindia.

Erramun Baxok ohorezko euskaltzaina eta Jean-Baptiste Coyos "Jagon" sailaren 9. zenbakia da, eta Euskararen Erakunde Publikoaren babesaz argitaratu da. Euskaraz eta frantsesez dago.

Ikerketa honek euskara ikasten duten Ipar Euskal Herriko helduen ezaugarriak aztertzen ditu, herrikoenak eta etorkinenak bereiziz. Euskal Herrian, Ipar Euskal Herrian, nahiz Hego Euskal Herrian, sortua ez den jendea etorkina da. Euskal Herrian sortu dena bertakoa, herrikoa da. Emaitzak AEK-ko ikasleen matrikulazio fitxetan oinarritzen dira.

DÍAZ Beatriz, 2004, *Lenguas y comunicación en la emigración*, Likiniano Elkartea. Bilbo

EUSKALTZAINDIA, 2009, *"Etorkinak eta euskara" Jagon Jardunaldietako hitzaldien laburpenak*. Bilbon 2009ko azaroan egindako jardunaldietako materialak.

www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&Itemid=1&catid=121&id=577&lang=eu&view=article



GIMÉNEZ, Carlos, 2010, *Kulturartekotasuna: kontzeptu proposamena eta aplikazio praktikoak*. Ikuspegi. Bilbo.

www.ikuspegi.org/documentos/investigacion/eus/ikuspegi_cuaderno2eus.pdf

ILLARRAMENDI Idoia, 2008, *Etorkinak gizarteratzeko harrera planak: hizkuntzen kudeaketarako prozedura*. HIZNET graduondoko bukaerako lana. (argitaratu gabe)

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, 2004, Euskara eta etorkinak. BAT aldizkariaren ale monografikoa. 52. zenbakia

www.soziolinguistika.org/eu/bat/sail/237

URANGA, B.; AIERDI, X.; IDIAZABAL, I.; AMORRORTU, E.; BARREÑA, A eta ORTEGA, A., 2008, *Hizkuntzak eta Immigrazioa*. Bilbo:Ikuspegi/Amarauna-Unesco Etxea.

Hego Euskal Herriko informazioa immigrazioaren bidez etorritako hizkuntzei buruz.

www.ikuspegi.org/documentos/documentos_internos/hizk_immi_web_eus.pdf



© 2009 Plataforma per la Llengua
© 2010 euskarazko bertsioa: Emun Koop. E.

Lege gordailua: SS-1553-2010
Arrasate, 2010eko urria.

Jatorrizko ideia: Plataforma per la Llengua
Testuaren itzulpena eta egokitzapena: Imanol Larrea
Diseinua eta maketazioa: Josep Ramon Canellas
Irudien diseinua: Clic Traç sccl
Inprimategia: Eguzkigraf Inprimategia

Emunek eskerrak eman nahi dizkie Castillo Suarezzi, Bego Zestauri (Sakanako Mankomunitatearen immigrazio teknikaria) eta Xabier Aierdiri (Ikuspegi) lan honetan parte hartu eta egin dituzten ekarpenengatik.



PLATA
FORMA
PER LA
LLENGUA

Uriburu 9, behea · 227 PK 20500 ARRASATE
Martin Ugalde Kultur Parkea · 20140 ANDOAIN
Gipuzkoako etorbidea 36, behea · 31013 BERRIOZAR
Larrauri kalea 1, A eraikina, 3.-14 · 48160 DERIO

Tel.: 943 711 847 · Faxa: 943 793 426

www.emun.com

Plataforma per la Llengua
info@plataforma-llengua.cat
www.plataforma-llengua.cat

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



gizarte
kutxa

Jatorrizko ideia:
Plataforma per la Llengua